



Ensemble pour Ciboure eta Ziburu Bizi oposizioako bi taldeen prentsa ageri komuna

2018ko abenduaren 19ko Herriko kontseilua
edo demokrazi ikasgai eder bat

Gehiengo bat arnasa amaieran

Bada 3 herriko kontseilu segidan Ziburuko eksekutiboa gehiengorik gabe ibiltzen ari dela eta oposizioaren presentziak diola soilik permititzen quorum-a lortzea behar bezala deliberatzeko.

Oposizioak ez du gehio hori onartu nahi.

Nahi duen bezain eraikitzaile izan aren, oposizio batek, ezin du gehiengoaren tokia hartu azken honen erabakiak bozkaarazteko.

Gaur egun Ziburun, ausenteak diren gehiengoko kideak ez dira ados eksekutiboarekin. Baina haien desadostasuna afitxatzeko ordez, ez dute herriko kontseiluetan parte hartzen.

Herria ez da gehio kudeatua !

Gainezkatzea egiten duen tanta

Ithurri baitaren saltzearen dozierrari lotu gehiengoaren gezur guziek argiki erakusten dute haien ibiltzeko eta politika egiteko modua.

Mandata honen hastapenetik, dozier inportante guzientzat eszenatokia errepikatzen da : informazio gordetzea, oztopoak, arauen errespeturik ez, mespretxua, auzapez jauna eta bere lehen adxuentaren « lerratzeak », eta gezurrak herriko kontseiluen denboran.

Dubarbier anderea lehen adxuentaren hitzek azken herriko kontseiluan (azaroaren 15ean) haien nahikeria eta oposizioaren gan duten mespretxua ongi isladatzen dute : « permititzen ahal banaiz, pentsatzen duzuen, aferetan izango zaitzalarik pentsatzen ahalko duzue, orduan nahi duzuten egingo duzue... eta kitto... ». Eksaserbatu aseguru honek ezin du gehio gorde gehiengoaren egoera deleterioa : hautetsi ainitzen demisionatzea (4 mandataren hastapena geroztik), beste batzuen desmotibazioa, eta eta beste batzuen arteko borroka segidarentzat...

Erabaki dugu beraz atzoko herriko kontseilua uztea, justu Ithurri Baitaren saltzearen deliberazioa hasi aintzin. Modu hortan, orroitarazi nahi ukan diegu, nahi dutena pentsatu aren, bai, oposizioak zerbaitentzat balio duela.

Bixtatik galdua

Demokrazia ariketa zaila bat balin bada ere exigentzia bat egoten da. Gure demokraziaren eskubide legalak erabili ditugu gure exaspirazioa azpimarratzeko hainbertze gortasunaren aintzinean. Gure helburua: Ziburutarren interesetaz arduratzea baita gure lurraldeaz.

Ikasgai polit bat, seguraski... gutienez espero dugu !